



## EZOHIKO DEIALDIAREN GAI-ZERRENDA (2026/03/26)

### 1. Hautaketa-prozesuen deialdia negoziatzea

#### HAUTAKETA-PROZESUEN DEIALDIA NEGOZIATZEA

Puntu honetan, **hautaketa-prozesuen deialdiaren negoziatioari** dagokionez, Administrazioak adierazi du, hautaketa-prozesu berrien diseinuaren esparruan, une oro sindikatu-ordezkaritza izan dela, eta 3 mahai tekniko informaziorako deitu direla, eta, atzo, hiru mahai sektorial (ohiko bat eta ezohiko bi), administrazioak egindako oinarrien zirriborroak zehatz-mehatz azaltzeko, ordezkartza sindikalarengandik administrazioak proposatutako diseinuari egindako ekarpenak eta iritzia jasotzeko, eta elkarrizketa eta proposamen-trukea ezarri ahal izateko, administrazioaren eta mahai sektorialeko alderdi sindikalaren arteko negoziatioaren esparruan.

Sindikatuaren ordezkartzatik jasotako alegazioei martxoaren 10eko mahaiaren erantzun zitzaien. Mahai horretan ere proposamen berriak jaso ziren, eta sindikatuak helarazitako alegazio eta kezkei buruzko azalpenak eman ziren.

Gai horiek zehatz-mehatz aztertu ditu berriz ere Enplegu Publikoak, eta oinarrien bertsio berri bat bidali du aldaketa horiekin. Aldaketa horiek aurreko zirriborroetan gehitutakoei gehitu zaizkie, atzo mahai sektorialaren bilkuran horien negoziatioa amaitu ahal izateko.

Sindikatuaren ordezkartzari helarazitako azken bertsioan egindako aldaketa nagusien artean, honako hauek aipatu behar ditugu:

1. Konpetentzia-probei emandako puntuazioa murriztea: oposizio-faseko guttziko puntuazioaren % 10etik % 5era pasako da.
2. Idazketa berria eta izangaien kalifikazioak ezartzeko formula zehatza sartzea. Epaimahaiak hautagaien nortasuna jakin aurretik finkatuko du nota hori. Muga bera ezartzen zaio gutxieneko notari eta gehienekoari, eta gaitasun-nota 3,5etik 6,5era artekoa izan daiteke (bi kasuetan 1,5 puntu 5etik behera edo 5etik gora). Neurri horri esker, gutxieneko izangai-kopuru bat bermatu ahal izango da, proba egitea bereziki zaila bada pertsona horiek egiaztatutako ezagutzari dagokionez, edo izangaien kopurua murriztu ahal izango da, izangaiek egiaztatutako ezagutzari dagokionez proba egitea bereziki erraza bada. Prozesu guztiei eragingo die.
3. EUSTATEko inkestagileek eta elkarrizketatzaileek emandako zerbitzuak aitortzeko oinarri espezifikoetan klausula bat sartzea. Horiei administrari laguntzaileen eskalako zerbitzuak zenbatuko zaizkie.

# MAHAI SEKTORIALA

4. Deitzen ez diren eskala teknikoetan emandako zerbitzuak eskala fakultatiboetan zenbatzeko aukera, lanpostuen bigarren mailako eskalak direlako.
5. Une honetan Administrazio Orokorrean eta haren erakunde autonomoetan dauden langile desgaituen ehunekoa aztertu da, eta desgaitasuna duten pertsonentzako sarbide-modalitatearen deialdia egiteko nahitaezko muga gisa ezarritako % 2tik gorako ehunekoa izan da. Hala ere, administrazio honek hautaketa-prozesu gero eta inklusiboagoen aldeko apustua egin nahi du, eta, horregatik, sarbide-modalitate hori hainbat eskalatan eskainiko da. Era berean, aurreko hautaketa-prozesuan sarbide-modalitaterako gordetako eta hutsik geratu ziren plaza guztietarako deialdia egingo da.
6. Baietsitako alegazio sindikalei dagokienez, honako hauek dira:
  - Praktikaldia kentzea (zigor-arloko betearazpeneko laguntzaileen eskalan izan ezik).
  - Etorkizuneko prozesuetan prozesuan lortutako nota gordetzeko aukera.
  - Esleipen aseguratua, % 10 osagarri arte.
  - Txandakako esleipena.
  - Ekonomiaren eskala aldatzea.
  - Lan-eskaintza publikoa egin aurretik betetzeko zailak diren lanpostuak betetzen laguntzeko neurriak, hala nola laneko medikuntza edo berdintasun-espezialitatea eskatzen duten lanpostuak.
  - Ezinduentzat gordetako plazak betetzea bermatuko duen mekanismoa ezartzea.
  - Eskatzen duten eta egoera horretara iristeko baldintzak betetzen dituzten lan-kontratudun finkoen erretiro partzialeko eskaerei erantzuteko neurri gehigarriak ezartzea.
  - Lehen eta bigarren mailako titulazio baloragarriari (zehazki masterren eta graduen artean) emandako puntuazioaren arteko distantzia murriztea.

Beraz, mahai sektorialaren saioetan hautaketa-prozesu horien oinarriari buruz egindako azterketaren ondoren, eta erakunde sindikalen proposamenak entzun ondoren, Administrazioak, atzo egindako bilkuran emandako argibide gehigarrien ondoren, **funtzionarioen eta langile lan-kontratudunen oinarri orokorrak eta espezifikoak negoziatutzat jo ditu.**

Hautaketa-prozesuen deialdiari dagokionez, honako hau adierazi behar da:

- **Maiatzeko** lehen asterako deialdia EHAAn egingo da:
  - Langile lan-kontratudunak hautatzeko 12 prozesu.
  - Funtzionarioen A taldeko 5 eskala.
  - Espetxe Administrazioko funtzionarioen A taldeko 5 eskala.

Prozesu horien lehen azterketak 2026ko urrian egingo dira.

- **Iraillean**, eskala hauek deituko dira:
  - AOko funtzionarioen B, C eta E taldeetako eskalak.
  - Zigor-betearazpeneko laguntzaileen eskala.



Prozesu horietako lehen azterketak 2027ko urtarrilean egingo dira.

- **Urrian**, honako prozesu eta eskala hauek deituko dira:
  - Lan-kontratuko langileen gainerako prozesuak.
  - Funtzionarioen A taldeko 25 eskala baino gehiago.

Prozesu horietako lehen azterketak 2027ko otsailetik martxora bitartean egingo dira.

**Data horiek** guztiak **orientagarriak** dira, eta aldaketaren bat izan dezakete. **Honekin batera doa hautaketa-prozesuen egutegia, adierazitako deialdiei buruzko informazioa zehazten duena.**

Era berean, atzoko mahai sektorialaren bilkuran, **Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Zigor Betearazpeneko Laguntzaileen Eskalan sartzeko hautaketa-prozesuaren deialdiaren eta hautaketa-prozesuaren oinarrien zirriborroaren negoziazioa hasi da.** Negoziazio horrek sindikatuek mahai sektorialaren hurrengo bileretan egiten dituzten ekarpenekin jarraituko du.